

XEDAPEN OROKORRAK

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

715

EBAZPENA, 2012ko urtarrilaren 18koa, Euskal Herriko Unibertsitateko Akademia Antolakuntzako errektoreordearena, Doktorego Ikasketak Kudeatzeko Arauak argitaratzeko dena.

Hirugarren zikloko doktoregoko ikasketek doktore titulua lortzera bideratzen dute, eta izaera ofiziala eta nazioko lurralde osorako balioa dute.

2011ko otsailaren 10ean, urtarrilaren 28ko 99/2011 Errege Dekretua argitaratu zen, doktorego ikasketa ofizialak arautzeko dena. Ikasketa horien helburua da ezagutza gizartearen ongizatera bideratzen lideratu eta kooperatu behar dutenak prestatzea. Errege Dekretu honek doktoregoaren egitura eta antolamendua jasotzen ditu, baita ere, lortu beharreko gaitasunak, sartzeko baldintzak eta ikerketa karreraren garapena haren hasierako etapan, ikerketarako prestakuntzaren ikuskapen eta tutoretzaren rol garrantzitsua, komunikazio eta sormena ikerketa giro batean sustatuko dituen prestakuntzaren txertaketa, horrelako ikasketetan ezinbestekoak diren internazionalizazioa eta mugikortasuna, eta kalitatearen ebaluzioa eta egiaztapena nazioartean aitortzea jaso eta erakargarria izateko erreferentzia gisa.

Doktoregoko ikasketak doktorego programen arabera egituratzen dira, doktorego eskolei agregatu eta atxiki dakizkiekeen aldi berean. Errege Dekretu berriak doktorego eskolak sor daitezkeela jasotzen du eta doktorego programen batzorde akademikoak ezartzen ditu, baita programaren koordinatzailearen irudia ere. Doktoregaiaren jardueren dokumentua sartzeko du, berritasun gisa, haren ikuskapena eta jarraipena egingo dela aurreikusita. Eta lehen aldiz ezartzen du doktoregoko ikasketak egiteko gehieneko epe bat izango dela, denbora partzialeko edo denbora osoko dedikazioz egiteko aukerarekin.

Bertan dator, halaber, tesiak ebaluatzeko epaimahaiak osatzeko, gehienak unibertsitateaz eta erakunde laguntzaileez kanpoko doktoreak izango direla. Biltzen dira, halaber, datu konfidentzialak babesteari eta ikerlanen balizko patenteen bermeei buruzko alderdiak, eta tituluan «nazioarteko doktorea» aipamena sartzeko aukera ezartzen da.

99/2011 Errege Dekretuak dakartzan aldaketak direla eta, doktoregoko ikasketak antolatu, doktorego tesiak prestatu, ikuskatu, aurkeztu eta defendatzerakoan, unibertsitateak barne arautegia egokitu beharra du doktoregoko ikasketak kudeatze aldera, haren estatutuek zehazten duten moduan, baita doktorego programak proposatzeko indarrean dagoen arautegia ere.

Ondorioz, arautegi honek du xede UPV/EHUri ematea doktoregoko ikasketak kudeatzeko prozedura, ikasleak doktorego programan onartu eta matrikulatzen denetik hasita harik eta doktorego tesia prestatu eta defendatu arte, betiere doktoregoko ikasketei buruz lehenagoko arautegietatik datozen bestelako araubideak kontuan hartuta.

Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak Doktorego Ikasketak Kudeatzeko Arauak ezartzea erabaki zuen 2011ko abenduaren 22ko bileran.

Otsailaren 25eko 3/2004 Legeak, Euskal Herriko Unibertsitate Sistemarenak, honela dio 10.2 artikuluan: «Antolaketaren eta jarduteko moduaren gainean unibertsitate publikoko gobernu organoek emandako estatutuak eta arauak, baita horien gaineko aldaketak eta orokorrean aplikatzekoak diren xedapenak ere, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira».

2012ko otsailaren 15a, asteazkena

Aipatutako guztia kontuan hartuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea Doktorego Ikasketak Kudeatzeko Arautegia, eranskinean jasotako moduan.

Leioa, 2012ko urtarrilaren 18a.

Errektorea.

Eskuordetzeaz (2011-02-25eko Ebazpena, 2011-03-17ko EHAA).

Akademia Antolakuntzako errektoreordea,
CARMEN GONZÁLEZ MURUA.

DOKTOREGO IKASKETAK KUDEATZEKO ARAUTEGIA
AKADEMIA ANTOLAKUNTZAKO ERREKTOREORDETZA
I. KAPITULUA

DOKTOREGO PROGRAMAK

1. artikulua.– Doktorego programak.

1.– Doktorego programa deituko dugu doktore titulua eskuratzeko beharrezkoak diren gaitasunak eta trebetasunak lortzera bideratutako jardueren multzoa. Programa horren xedea izango da doktoregaiaren prestakuntzarako alderdiak garatzea eta doktorego tesiak garatzeko ikerketarako prozedurak eta ildoak ezarriko ditu.

2.– Doktorego programak UPV/EHUk bakarrik edo unibertsitate batzuek elkarrekin antola ditzakete eta I+G+Bko jarduerak dituzten nazioko edo atzerriko arlo publiko edo pribatuko beste organismo, zentro, erakunde eta entitateen laguntza izan dezakete, hitzarmen bidez adierazia.

3.– Doktorego ikasketak amaituko dira ikerketaren emaitza orijinalak jasotzen dituen doktorego tesi bat prestatu, defenditu eta onartzen denean.

II. KAPITULUA

SARTU, ONARTU ETA MATRIKULATU

2. artikulua.– Sartzeko baldintzak.

1.– Oro har, doktorego programa ofizial batean sartzeko, Espainiako unibertsitate graduako tituluak, edo baliokidea, eta unibertsitate masterreko tituluaren jabe izan beharko da.

2.– Parte har dezakete, baita ere, kasu hauetako batean daudenek:

1.– Espainiako unibertsitate titulu ofizial baten jabe izatea, edo Europako Goi Hezkuntzaren Eremuko beste herri batekoa, baldin eta, urriaren 29ko 1393/2007 EDko 16. Artikuluak ezarritakoarekin bat etorrita, masterrean parte hartzeko gaitzen badu. Eta gaindituak izatea, gutxienez, 300 kreditu ECTS, unibertsitate titulu ofizial guztiak kontuan hartuta, eta horietatik 60, gutxienez, master mailakoak izango dira.

2.– Espainiako gradudun titulu ofizial baten jabe izatea, baina iraupena, zuzenbide komunitarioko arauak betez, 300 kreditu ECTSekoa izatea, gutxienez. Tituludun horiek nahitaez egin beharko dituzte doktorego programak ezartzen dituen prestakuntza osagarri espezifikokoak, salbu eta duten gradu tituluaren ikasketa planak ikerketako prestakuntzarako kredituak baditu, masterreko ikasketetatik datozen ikerketa kredituen baliokideak direnak hezkuntza balioa kontuan hartuta.

3.– Unibertsitate tituludunak, baldin eta lehenago osasun prestakuntza espezializatuko plazetarako dagokion proba sarrerako prestakuntzan plaza lortu badute eta, badin eta osasun zientzien espezialitateetako baten titulu ofiziala lortzeko, programa bateko bi urteko prestakuntza ebaluazio positiboaz gainditu badute.

4.– Titulu bat izatea atzerriko hezkuntza sistemen arabera, homologatu beharrik izan gabe, eta unibertsitateak aurrez frogaturik tituludun horrek Espainiako unibertsitate masterreko titulu ofizial baten baliokide den prestakuntza maila egiaztatu duela eta titulua eman duen herrialdean doktorego ikasketak egiteko aukera ematen duela (hautagaiak dagokion egiaztagiria aurkeztu beharko du). Onarpen horrek doktorego ikasketetan parte hartzeko beste ezertarako ez du balioko, hau da, ez

du inolaz ere esan nahiko interesdunak lehenagotik duen titulua homologatzen denik, ezta beste ontorio batzuetarako aitortzen zaionik ere.

5.– Ikasketa Aurreratuen Diploma duten lizentziadun, arkitekto edo ingeniariak, apirilaren 30eko 778/1998 Errege Dekretuan jasotakoarekin bat etorrira, edo urtarrilaren 23ko 185/1985 Errege Dekretuaren ikerkuntzako gaitasuna lortu dutenak.

6.– Espainiako beste doktore titulu bat izatea lehenago izandako bestelako unibertsitate antolamenduen arabera.

3. artikulua.– Onartuak izateko irizpideak.

1.– Doktorego programaren Batzorde Akademikoak doktoregaiak hautatu eta onartzeko beste baldintza osagarri batzuk ezar ditzake, honako alderdiak jaso ditzaketanak, besteak beste: gai espezifiko bat edo gehiago nahitaez aldi berean egina izatea edo egitea, mailako probak edo elkarriketa pertsonal bat gainditzea.

2.– Eska litezke, doktorego programetan onartua izateko, prestakuntza osagarri bereziak ere. Berariazko prestakuntza osagarri horiek, prezio publiko eta ikasteko bekak eta laguntzak emateari begira, doktorego mailako prestakuntzatzat hartuko dira.

3.– Lehen paragrafoak aipagai dituen onartua izateko baldintzak eta irizpideak, eta bigarren paragrafoak aipagai dituen prestakuntza osagarrien diseinua, doktorego programaren proposamenean ezarriko dira, doktorego programak proposatzeko egun indarrean dagoen arautegiaren arabera.

4.– Doktorego programa bakoitzak ezartzen dituen onartua izateko sistemek eta prozedurek jaso beharko dituzte, desgaitasuna dela-eta hezkuntza behar bereziak dituzten doktoregaien kasuan, laguntzeko eta aholkatzeko zerbitzu egokiak. Azken horiek aztertuko dute curriculum egokitzapen edo bestelako ikasbide edo ikasketarik egin behar den.

Oro har, doktorego programak bermatu egin beharko du doktorego tesia doktorego programan parte hartzen duten ikertaldeetako batean egin dadin.

4. artikulua.– Onartua izateko prozedura.

UPV/EHUK ezarriko du ikasturte bakoitzerako doktorego programa batean onartzeko izena emateko epea zein den.

Sartzeko baldintzak biltzen dituzten hautagaiak Doktoregoaren Batzorde Akademikoari eskatuko diote, horretarako ezarritako epean, doktorego programan onartzeko.

Behin onarpen eskaera aurkezteko epea bukatuta, programa bakoitzaren Batzorde Akademikoak hautatzeari ekin eta onartutakoen atariko zerrenda argitaratuko du preinskripzio eskaeran ezarritako epean eta tokietan. Onartutakoei jakinaraziko zaie zein den egokitutako tutorearen izena eta, kasuaren arabera, zein diren hautagai bakoitzak egin behar dituen prestakuntza osagarriak. Atzerriko titulazioa duten Europako Goi Hezkuntzaren Eremukoak ez diren herrialdeetako ikasleen kasuan, doktorego programaren Batzorde Akademikoak igorriko du dokumentazioa, behin betiko onarpenerako, Doktorego Azpibatzeraren bitartez.

Zerrendarekin ados ez dauden hautagaiak beren erreklamazioa aurkez diezaiokete doktorego programaren Batzorde Akademikoari 10 egun naturaleko epean. Batzorde Akademikoak erantzun eta ebatziko ditu erreklamazioak 10 egun naturaleko epean eta onartutakoen behin betiko

zerrenda argitaratuko. Interesdunak horren kontrako erreklamazioa aurkez diezaioke Doktoregoko Azpibatzaileari.

UPV/EHUko Graduondoko Ikasketen Zerbitzuan matrikulatu beharko da beti ere, doktorego programan onartua izateko.

5. artikulua.– Matrikulatzeko prozedura.

Doktoregaitzat joko da doktorego programa batean onartua izan eta bertan matrikulatu dena, lehenago, ezarritako baldintzak egiaztatuta.

Doktorego programa batean onartutako doktoregaiak urtero matrikulatuko dira Graduondoko Ikasketen Zerbitzuan doktoregoaren tutoretza akademikoaren kontzeptupean, Eusko Jaurlaritzak ezartzen dituen prezio publikoen arabera, eta ikasturte bakoitzerako ezartzen den prozedurarekin bat etorrita.

Unibertsitateak ezarriko du zein den ikasturte bakoitzerako doktorego programetan matrikulatzeko epea.

Doktorego mailako prestakuntzat joko da prestakuntza espezifikorako osagarriengatik matrikula, prezio publiko eta ikasteko bekak eta laguntzak emateari begira. Kasuaren arabera, osagarri horiek doktoregoaren lehen bi urteetan egingo dira.

Matrikula egiteko, doktoregaiak honako dokumentazioa aurkeztu beharko dute:

1.– Doktorego programa onartu beharko du Batzorde Akademikoak, eta egin beharreko prestakuntza osagarriak azalduko dira, behar izanez gero (I. eranskina).

2.– Tutorearen izendapena, doktorego programan parte hartzen duten UPV/EHUko irakasleetako bat izango dena.

3.– Doktorego programan sartzeko aurkeztu duen titulua (fotokopia erkatua edo kopia eta jatorrizkoa alderatzeko).

4.– Indarrean dagoen NANaren edo pasaportearen fotokopia.

5.– Argazki bat.

6.– Doktoregaiak aseguru bat izan beharko dute beren ikasketak egiteko. 28 urtetik gorako doktoregaiak aseguru bat kontratatu beharko dute (aukeran, UPV/EHUren Cum Laude poliza eskaintzen da). 28 urtetik beherako doktoregaiak nahitaez ordaindu beharko dute eskola aseguru.

7.– Egoki izanez gero, matrikularen prezio publikoak ez ordaintzeko edo zati bat bakarrik ordaintzeko eskubidea egiaztatzen duten dokumentuak.

Titulazioa atzerriko unibertsitate batek eman dien doktoregaien kasuan, aurreko dokumentazioaz gainera, beste hauek ere aurkeztu beharko dituzte:

1.– Titulua Europako Goi Hezkuntzaren Eremukoa den herrialde batek egin badu, eta titulua Euskal Autonomia Erkidegoarenak ez diren beste hizkuntza batean erredaktatuta badago, titulu hori gaztelaniara edo euskarara egindako zinpeko itzulpena aurkeztu beharko du.

2.– Titulua Europako Goi Hezkuntzaren Eremukoa ez den unibertsitate batek egin badu, titulua bide diplomatikoz legeztatuta egongo da. Titulua Euskal Autonomia Erkidegoarenak ez diren beste hizkuntza batean erredaktatuta badago, titulu hori gaztelaniara edo euskarara egindako zinpeko itzulpena aurkeztu beharko du.

3.– Jatorrizko unibertsitateak emandako egiaztageria, bertan azalduko da emandako tituluak doktorego ikasketak egiten jarraitzeko aukera ematen duela.

Bigarren mailan eta hurrengoetan matrikulatzeko, III. Kapitulua aipagai dituen Ikerketa Plana eta Jardueren Dokumentu Pertsonalizatua behar bezala ebaluatuta eta beteta egongo dira.

III. KAPITULUA

DOKTOREGO TESIAREN GARAPENA ETA JARRAIPENA.

6. artikulua.– Doktorego prestakuntzaren iraupena.

Doktoregoko ikasketek hiru urteko iraupena izango dute, denbora osoz, doktoregaia programan onartu dutenetik kontatzen hasita harik eta doktorego tesia aurkeztu arte.

Aurrekoa gorabehera, eta programaren Batzorde Akademiko arduradunak aurrez baimenduta, doktoregoko ikasketak egin daitezke denbora partzialez. Kasu horretan, ikasketek bost urteko iraupena izango dute gehienez, doktoregaia onartu dutenetik doktorego tesia aurkeztu arte.

Behin aipatutako hiru urteko epea igarota, tesia gordailuan uzteko eskaera aurkeztu ezean, programaren Batzorde Akademikoak urtebetez luza dezake epea, salbuespen gisa beste urte bat gehiagoz luza daiteke, kasuan kasuko doktorego programan zehaztu diren baldintzetan. Denbora partzialeko ikasketetan, bi urte gehiagoz luzatzeko baimendu dezakete eta, hori ere, salbuespen gisa, beste urte bat gehiagoz luza daiteke.

Aurreko epea neurtzeari begira, ez dira kontuan hartuko gaixotasun edo haurdunaldiagatikoko bajak. Baja horien berri eman beharko zaio, erregistratzeko, Graduondoko Ikasketen Zerbitzuari.

Era berean, doktoregaiak aldi baterako baja eska dezake programan, urtebetez gehienez, urte bat gehiagoz luza daitekeena. Eskaera programaren Batzorde Akademiko arduradunari zuzendu eta justifikatuko zaio, eta horrek doktoregaiak eskatutakoaz erabaki behako du.

1393/2007 Errege Dekretuaren arabera araututako doktorego programak 99/2011 Errege Dekretura egokitu beharko dira 2013/2014 ikasturtea hasi baino lehen. 185/1987, 778/1998, 56/2005 eta 1393/2007 errege dekretuen arabera araututako doktorego programetan matrikulatutako doktoregaiak eta 99/2011 EDrako egokitzapena lortzen dutenak ofizioz sartuko dira baimendutako kasuan kasuko programan, amortizatutako programan eginak dituzten jarduerak onartuta.

2016ko otsailaren 11 izango dute azken eguna doktorego tesia defendatzeko doktorego programetan matrikulatuta egon eta egokitzapena lortu ez duten doktoregaiak.

Edonola ere, 99/2011 Errege Dekretuaren arabera egiten ez diren oraingo doktorego programak 2016ko otsailaren 11 arte egongo dira indarrean, programa horietan izena eman duten doktoregaiak ikasketak bukatzen bermatze aldera bakarrik, eta doktoregai berriek ezin izango dute programa horietan izenik eman. Aipatutako egunaz geroztik unibertsitatearen eskaintza akademikotik kendu eta horien desagerrarazteari ekingo zaio.

7. artikulua.– Doktorego tesia.

Aurreko artikuluan ezarritako betez, doktore titulua lortu nahi dutenek, kasuan kasuko doktorego tesia aurkeztu eta onar diezaieten lortu beharko dute.

Doktorego tesia hautagaiak edozein jakintza arlotan jorratutako ikerlan orijinal bat izango da, betiere metodo zientifikoarekin bat etorrita. Tesiak doktoregaia gaitu behar du I+G+B arloko lan autonomorako.

Hauek dira doktorego tesiaren memoria, erreferentzia gisa, egituratuko dutenak: laburpena, sarrera edo aurrekariak, helburuak, hipotesiak, metodologia, emaitzak, eztabaida, bibliografia eta ondorioak.

8. artikulua.– Doktorego tesiaren tutore eta zuzendari lana.

Behin doktoregaia doktorego programan onartu dutela, dagokion Batzorde Akademikoak ikerketa esperientzia egiaztatuta duen tutore edo doktore bat emango dio, doktorego programan parte hartzen duten UPV/EHUko irakasleen artean aukeratuta, eta horrexek zaindu beharko du doktoregaiaren eta doktorego programaren Batzorde Akademikoaren arteko interakzioa. Tutorea prestakuntza eta ikerlana doktorego programaren eta kasuan kasuko doktorego eskolaren printzipioetara egokitzeko arduraduna da.

Batzorde Akademikoak, doktoregaiari entzun ondoren, doktoregaiaren tutorearen izendapena alda dezake, doktoregoa egiten ari den bitartean edonoiz, baldin eta hori justifikatzen duten arrazoiak badaude.

Doktoregaia matrikulatu eta hurrengo sei hilabetetan gehienez, programaren Batzorde Akademiko arduradunak doktorego tesirako zuzendari bat emango dio doktoregai bakoitzari, eta tutorea bera izan liteke edo ez. Tesiaren zuzendaria honakoetan izango da arduradun nagusia: doktoregaiaren prestakuntza eta ikerketa lanak zuzentzen, jarduera horien koherentzia eta egokitasunean, doktorego tesiaren gaiaren arloan izango duen inpaktuan eta berritasunean, plangintza eramaten eta, behar izanez gero, doktoregaiak izena ematen duen beste proiektu eta jardueretara egokitzen. Zuzendaria UPV/EHUkoa ez bada, tutoreak egingo du unibertsitatearekiko lotura lana.

Erretiroa hartzen duten unean doktorego tesi bat zuzentzen ari diren irakasleek tesia zuzentzen jarrai dezakete, baldin eta programaren Batzorde Akademikoak egoki ikusten badu. Irakasle emerituek eta erretiratuek ezin izango dute doktorego tesirik zuzendu.

Tesia beste zuzendari batzuekin batera ere zuzendu daiteke, baldin eta horretarako arrazoi akademikorik badago, esaterako, gaiak hainbat diziplina hartu edo programak nazioko edo nazioarteko beste unibertsitate batzuekin edo I+G+B arloko erakundeekin elkarlanean egin direlako, aurrez Batzorde Akademikoak baimenduta. Baimen hori atzera bota daiteke aurrerago, baldin eta, Batzorde Akademikoaren iritziz, elkarrekin zuzentzeak tesiaren garatzeari onik egiten ez badio. Ez da inoiz ere onartuko bi zuzendari baino gehiago izendatzea doktorego tesi bera zuzentzeko.

Doktorego programaren Batzorde Akademikoak, doktoregaiari entzun ondoren, doktorego tesiaren zuzendariaren izendapena alda diezaioke doktoregaiari, doktoregoa egiten ari den bitartean edonoiz, baldin eta hori justifikatzen duten arrazoiak badaude.

9. artikulua.– Jardueren dokumentu pertsonalizatua.

Programan matrikulatu ondoren, doktoregai bakoitzarentzat jardueren dokumentu pertsonalizatua erabiliko da kontrolerako erregistro individualizatuari begira (II. eranskinaren arabera). Doktoregaiak horretan inskribatuko ditu doktoregoa garatzeko interesgarriak diren jarduera guztiak, programaren Batzorde Akademikoak araututakoaren arabera. Prestakuntzarako jarduerak ez dago nahitaez ECTS kredituetan egituratu beharrik eta programa bakoitzaren eremuko zeharkako prestakuntza

zein espezifikoa bilduko dituzte. Dena dela, doktoregaiaren jarduera funtsezkoena ikerlana izango da.

Jardueren dokumentu pertsonalizatua aldizka ikuskatuko dute tesiaren tutoreak eta zuzendariak eta urtero ebaluatuko doktorego programaren Batzorde Akademiko arduradunak, Graduondoko Ikasketen Zerbitzuari helaraziko diona. Ebaluazio positiboa ezinbestekoa izango da, doktorego programan jarraitzeko.

10. artikulua.– Konpromisorako dokumentua.

Doktorego tesiaren nondik norakoak bilduko dituen konpromisorako dokumentu bat izango da (III. eranskinaren arabera). Doktoregaiak, tutoreak, zuzendariak eta doktorego programaren koordinatzaileak sinatuko dute, eta jatorrizko dokumentua Graduondoko Ikasketen Zerbitzuan gordeko da. Konpromiso hori lehenbailehen izenpetuko da, programan onartu eta sei hilabete igaro baino lehen. Bertan jasoko dira gorabeheraz erabakitzekeko prozedura bat eta konfidentzialtasunari buruzko alderdiak (IV., V., VI., VII. eta VIII. eranskinak), baita doktorego tesia egin ahala sor daitezkeen jabetza intelektual edo industrialeko eskubideekin lotutako alderdiak ere.

11. artikulua.– Ikerketa plana.

Matrikularen lehenengo urtea amaitu baino lehen, ikerketa plan bat prestatuko du honakoak bildu beharko dituenak bederen: erabili beharreko metodologia eta lortu nahi diren helburuak, horiek lortzeko baliabideak eta denbora plangintza (IX. eranskinaren arabera). Plan hori hobetu eta zehaztu daiteke doktorego tesia egin ahala eta tutoreak eta zuzendariak babestu beharko du. Aipatutako plana Graduondoko Ikasketen Zerbitzuan aurkeztu beharko da doktoregaiaren espedientean erregistratzeko.

12. artikulua.– Ebaluatzea eta jarraitzea.

Urtero, programaren Batzorde Akademikoak ebaluatuko ditu ikerketa plana eta jardueren dokumentua, baita horretarako tutoreak eta zuzendariak egin beharko dituzten txostenak ere. Ebaluazio positiboa ezinbestekoa izango da doktorego programan jarraitzeko. Ebaluazio negatiboa emanaz gero, behar bezala arrazoituta, doktoregaia sei hilabete baino lehenago ebaluatu beharko da, eta horretarako beste ikerketa plan bat prestatu beharko du. Berrito ebaluazio negatiboa emanaz gero, doktoregaia doktorego programatik kanpo geldituko da behin betiko.

IV. KAPITULUA

DOKTOREGO TESIAREN AURKEZPENA ETA DEFENTSA

13. artikulua.– Doktorego tesia aurkeztu.

Doktorego tesia amaitu ondoren, eta zuzendari, tutore eta programaren Batzorde Akademikoak baimendutakoan, eta doktorego tesia erregistratu den sailari horren berri eman eta gero, doktoregaiak Doktoregoko Azpibatzaordeari aurkeztuko dio baimena eman dezan.

Tesia, bere jakintza arloan, komunikazio zientifikorako erabili ohi diren hizkuntzetan egin daiteke. Euskal Autonomia Erkidegoarenak ez diren hizkuntza batean egin edo defenditu bada, laburpen bat aurkeztu beharko du, bost orrialdekoa gutxienez, gaztelaniaz edo euskaraz.

Tesia hizkuntza batean baino gehiagotan aurkeztu izanaren egiaztatzea lortzeko, haren zati garrantzitsu bat beste hizkuntza batean idatzi beharko da, gutxienez laburpena, eztabaida orokorra eta ondorioak. Egiaztatzea doktoregaiak eskatuko dio UPV/EHUko Doktoregoko Azpibatzaordeari, doktorego tesiaren zuzendariak ontzat emanda.

Tesiaren hiru ale aurkeztu beharko dira ondorengo informazioarekin:

Azalean honakoak agertuko dira, gutxienez:

- 1.– UPV/EHUren sinboloa.
- 2.– Doktorego tesiaren izenburua.
- 3.– Egilearen izena.
- 4.– Urtea.

Azalean jar daitezke, UPV/EHUren sinboloarekin batera, doktorego eskolarenak, baita tesi zuzendarien izenak ere. Kontrazalean edo barruko aldean jar daitezke UPV/EHUkoak ez diren erakunde, enpresa edo instituzioenak, ez azalean, ordea. Horrela ez egiteak gordailuan uzteko epea abiatzea eragotziko du.

Hauek dira koadernatuta joango diren dokumentuak:

- 1.– Tesiaren zuzendariaren edo zuzendarien baimena tesia aurkezteko, jatorrizko sinadurekin (X. eranskina).
- 2.– Doktorego programaren Batzorde Akademikoko koordinatzailearen baimena, jatorrizko sinadurarekin (XI. eranskina).
- 3.– Doktorearen graduko akta (XII. eranskina).

Doktoregaiak Doktoregoko Azpibatzaileari igorriko dio aurreko dokumentazioa, UPV/EHUko Erregistro Orokorren bitartez.

14. artikulua.– Doktorego tesiko epaimahaia proposatu.

10 doktoreko proposamena aurkeztuko da (XIII. eranskina), irizpide hauek kontuan hartuta:

1.– Denak izango dira espezialistak doktorego tesiaren gaian eta CNEAIk onartutako ikerketa tarte bat (seiurtekoa) edo kasuan kasuko ebaluatu eta egiaztatzeko agentziak onartutako tarte baliokide bat izango dute, irakasle ez funtzionarioen kasuan. Atzerriko irakasleek edo I+G+B arloko jarduerak dituzten nazioko edo atzerriko erakunde, zentro, instituzio eta entitate publiko nahiz pribatuetako ikertzaileek Doktoregoko Azpibatzaileak onartutako 5 ekarpen garrantzitsu egiaztatu beharko dituzte, betiere CNEAIren irizpideekin bat etorrira.

2.– Doktorego tesietarako epaimahai bateko presidentea izateko, Ikerketa Ebaluatzeko Estatuko Batzordeak onartutako bi ikerketa tarte, gutxienez, izan beharko da. Salbuespen gisa, ikertzaile bat hauta daiteke doktorego tesietarako epaimahai bateko presidente, nahiz eta aipatutako baldintza ez bete, baina UPV/EHUko Doktorego Azpibatzaileak egokitzen jotzen dituen merezimenduak egiaztatzen baditu (10 ekarpen garrantzitsu). Kasu horretan, jakintza arlo bakoitzeko espezifikotasunak hartu beharko dira kontuan.

- 3.– Gehienez, hiru izango dira unibertsitate edo ikergune berekoak.

4.– Proposatutako hamar doktoretatik lau gutxienez izango dira unibertsitateko katedradunak edo antzekoak goi hezkuntzako edo ikerketako erakundeei lotuta.

- 5.– Haietako bik gutxienez bete behar dituzte presidente izateko baldintzak.

6.– Proposamenean ezin izango dira agertu unibertsitatekoak ez diren nazioko edo atzerriko erakundeetako edo ikergunetako bi kide baino gehiago.

7.– Proposa daitezke eszedentzian edo erretiroan egon eta Unibertsitateko irakasleen kidegoetakoak diren irakasleak.

8.– Ezin izango da proposatu tesiaren zuzendaria, ezta tutorea ere, salbu eta horrela izan daitekeela jasota duten atzerriko unibertsitateekin alde biko akordioen eta tutorekidetza hitzarmenen markoan aurkeztutako tesien kasuan.

9.– Azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, III. kapituluaren zehazten duenez, ezin izango dute parte hartu epaimahaian tesiaren zuzendariekin, tutorearekin edo doktoregaiarekin laugarren maila arteko odol ahaidetasuna edo bigarren maila arteko ezkontza ahaidetasuna duten doktoreek, adiskidetasun mina edo ikusezintasun nabarmena duten doktoreek.

10.– Unibertsitateak dituzten institutu mistoetako ikertzaileak, institutu misto horiek kontratatutakoak, unibertsitatekotzat joko dira. Era berean, UPV/EHUkotzat hartuko dira Ramón y Cajal-eko eta Ikerbasqueko ikertzaileak, UPV/EHUri atxikitakoak eta abar. Baita UPV/EHUko irakasle erretiratuak ere.

11.– Kontuan hartu beharko dira genero berdintasunerako irizpideak.

Ezin dira inola ere proposatu epaimahaiko kide izateko gaixotasunagatik bajan dauden doktoreak. Epaimahairako proposatutako doktoreetako bat egoera horretan badago proposamena bidali ondoren, tesia inskribatuta dagoen saileko zuzendariak Graduondoko Ikasketen Zerbitzuari jakinarazi beharko dio, eta epaimahairako beste kide bat proposatuko du.

Tesia inskribatuta dagoen saileko idazkaritzak hura gainditu ondorengo 5 egun naturaleko gehieneko epean bidali beharko dio Doktoregoko Azpibatzordeari, UPV/EHUko Erregistro Orokorren bitartez, doktorego tesia epaitu behar duten epaimahaia osa lezaketan 10 kideren proposamena, aurreko artikuluan aipatutako dokumentazioarekin batera. Proposamen hori tesia inskribatuta dagoen sailak onartu beharko du, tesiaren zuzendariari eta doktorego programaren Batzorde Akademikoari entzun ondoren.

15. artikulua.– Doktorego tesia epaitu behar duen epaimahaia izendatu.

Hamar kideko proposamena kontuan hartuta, UPV/EHUko Doktoregoko Azpibatzordeak 7 kidez, hau da, bost titular eta bi ordezkoko, osatutako epaimahaia izendatuko du. Kide horien artean:

1.– Ezin izango dira egon unibertsitate edo ikergune bereko bi kide baino gehiago.

2.– Bik epaimahaiko buru izateko baldintzak bete beharko dituzte.

3.– Ezin izango dira egon unibertsitateko edo ikergunetakoak ez diren erakundeetako kide bat baino gehiago.

Bost kide titularren artean, bi gutxienez izango dira unibertsitateko irakasleak.

Kide titular baten tokian ordezkoko bat jartzeko beharrik izanez gero, UPV/EHUko Doktoregoko Azpibatzordeari eman beharko zaio horren berri.

16. artikulua.– Doktorego tesia gordailuan utzi.

1.– Behin 13. eta 14. artikuluetan aipatutako dokumentazioa UPV/EHUko Erregistro Orokorrean utzita eta doktoregaiak exijitutako baldintzak betetzen dituela egiaztatuta, gordailuan uzteko 15 eguneko epea ezartzen da alegazioak aurkezteko. Gordailuaren hasiera data Idazkaritza Nagusian eta kasuan kasuko doktorego eskolan argitaratuko da.

2.– Doktorego tesia edozein doktoregaik azter dezake Idazkaritza Nagusian, eta egoki jotzen dituen alegazioak aurkez ditzake haren edukiari buruz. Alegazioak Erregistro Orokorraren bitartez aurkeztuko dira Doktoregoko Azpibatzordeari zuzenduta eta izaera konfidentziala izango dute. Doktoregoko Azpibatzordeak tesiaren zuzendariari, doktorego programaren Batzorde Akademikoari eta doktoregaiari bidaliko die alegazioen transkripzio literala, aipatutakoek Doktoregoko Azpibatzordeari alegazioez egoki iruditzen zaizkien erantzunak aurkez diezazkioten.

17. artikulua.– Doktorego tesiaren defentsa baimendu.

1.– 16. artikulua aipatzen duen gordailuan uzteko epea igarotakoan, UPV/EHUko Doktoregoko Azpibatzordeak erabakiko du – behin jasotako idazkiak eta egokitzat jotzen dituen adituengandik bil litzakeen informazio gehigarria aztertuta–, 15 egun naturaleko epean gehienez, tesiaren defentsa baimentzen duen, edo, alderantziz, atzera botatzen duen.

2.– Tesiaren defentsa baimendu eta gero, UPV/EHUko Doktoregoko Azpibatzordeko presidentek tesia epaitu behar duen epaimahaiaren bost kide titular eta bi ordeko izendatuko ditu, 15 egun naturaleko epean gehienez, UPV/EHUko Doktoregoko Azpibatzordeak adituak kontsultatzea erabakiz gero, horiei entzundakoan.

3.– Epaimahaia izendatu ondoren, UPV/EHUko Doktoregoko Azpibatzordeko presidentek defentsaren izendapena eta baimentzea bidaliko dizkie epaimahaiko kide titularrei, tesiaren zuzendariari, doktorego programaren Batzorde Akademikoari, doktorego eskolari, tesia inskribatuta dagoen sailari eta doktoregaiari.

4.– Tesia inskribatu den sailak 10 egun natural izango ditu, izendapena atera den egunetik kontatzen hasita, epaimahaiko kideei epaitu behar den tesiaren aleak helarazteko, baita doktoregaiaren jardueren dokumentua eta doktoregaiak egin dituen prestakuntza jarduerak ere. Jarraipen dokumentu horrek ez du puntuazio kuantitatiborik izango, bai ordea kualitatiboa eta, ondorioz, doktorego tesiaren ebaluazioa osatzeko balioko duena.

5.– Graduondoko Ikasketen Zerbitzuak unibertsitate, ikergune eta abarri eskatuko die beharrezkoak diren zerbitzu eginkizunak.

6.– Doktoregaiak, baimen hau lortu ondoren, defentsarako matrikula egin eta dagozkion tasak ordaindu beharko ditu.

18. artikulua.– Doktorego tesiaren defentsarako dataren publizitatea.

1.– Defentsa publikoa egiteko baimena jaso ondoren, epaimahaiko buruak, epaimahaikideei entzunda, argitara aterako ditu bi egun natural lehenago gutxienez, doktorego tesiaren defentsa egiteko data, tokia eta ordua. UPV/EHUko Doktoregoko Azpibatzordeko presidenteari jakinarazi beharko dio epaimahaiko idazkariak (XIV. eranskina).

2.– Informazio hori bera, defentsa egiteko hautatuko den UPV/EHUko ikastegiko administrariari ere jakinaraziko zaio, behar diren administrazio diligentziak egin ditzan.

19. artikulua.– Doktorego tesia defendatzeko matrikula.

Unibertsitateko goi hezkuntzako titulu ofizialetarako prezioak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntzarako Sailak ezartzen ditu ikasturte bakoitzerako.

20. artikulua.– Doktorego tesia defendatu eta kalifikatu.

Doktorego tesia bilkura publikoan egingo den defentsa ekitaldian ebaluatuko da. Aipatutako ekitaldian doktoregaiak prestatutako ikerlana azaldu eta defendatu beharko du epaimahaikideen

aurrean. Azalpenenean sartuko dira, baita ere, izandako prestalana, tesiaren edukia eta ondorioak, eta doktoregaiak berak egindako ekarpen orijinalen aipamena batez ere.

Doktorego tesiaren defentsa ekitaldia urte osoan egin daiteke, abuztuan izan ezik.

Doktorego tesiaren defentsa UPV/EHUko egoitzetan egingo da, salbu eta tutorekidetza tesietan eta beste unibertsitate batzuekin elkarlanean egindako tesietan, unibertsitateen arteko doktorego programen markoan, horrela ezarri denean kasuan kasuko hitzarmenean.

Epaimahaiko kide titularren batek arrazoi justifikatuarengatik edo agertzeko gertatutako ezintasunarengatik uko eginez gero, epaimahaiburuak ordezkotako bat jar dezake.

Epaimahaiak ezin izango du, inola ere, xede honetarako izendatutako bost kiderekin baino gutxiagorekin jardun.

Defentsa ekitaldian, doktorego tesia inskribatuta dagoen sailari bidalitako alea izango du epaimahaiak, eta doktorearen graduko aktan sartuko du, eta koadernatu gabeko doktorearen graduko akta bat ere izango du. Defentsa bukatutakoan, biak sinatu beharko dituzte epaimahaiko kide guztiek eta doktoregaiak.

Epaimahaiko kideek beren iritzia adierazi beharko dute aurkeztutako tesiaren gainean eta haiei egoki iruditu behar adina galdera eta kontu plazaratu ditzakete, eta doktoregaiak erantzun egin beharko die. Ekitaldi publikoko doktoregaiak ere azal ditzakete beren galderak eta kontuak, eta doktoregaiak erantzun egin beharko die, epaimahaiko buruak esaten duen unean eta moduan.

Tesiaren defentsa eta eztabaida amaituta, epaimahaiko kide bakoitzak tesiari buruzko balorazioa egingo du idatziz (XV. eranskina).

Tesiaren defentsa bukatuta, epaimahaiburuak kalifikazioa emango du: «gai» edo «ez gai».

Tesiari «cum laude» eman dakion proposa dezake epaimahaiak, baldin eta horren aldeko boto sekretua eta aho batez ematen bada. Horretarako, epaimahaiko kide bakoitzak bere boto positiboa edo negatiboa emango du itxitako gutun azal batean. Botoak doktorego tesiaren defentsa saioan ez beste batean zenbatuko dira.

Epaimahaiak aukera eman dezake doktoregoko sari berezietara aurkez daitezen, baldin eta «cum laude» aipamena lortu eta horren aldeko boto sekretua eta aho batez ematen bada. Horretarako, epaimahaiko kide bakoitzak bere boto positiboa edo negatiboa emango du itxitako gutun azal batean. Boto positiboa aho batez eman bada, doktore egin berriak doktoregoko sari berezia eska dezake kasuan kasuko deialdian.

Tesia hizkuntza batean baino gehiagotan defendatu den ziurtapena lortzeko, defentsaren zati garrantzitsu bat beste hizkuntza batean egin beharko da, honakoen zati bat bederen: sarrera, emaitzak, eztabaida eta ondorioak. Aipatutako ziurtapena dagokion graduko aktan jasoko da.

21. artikulua.– Doktorego tesia artxibatu.

Tesia defendatzeko ekitaldia amaitu ondoren, epaimahaiko idazkariak dokumentu hauek bidali behar ditu UPV/EHUko Erregistro Orokorren edozein bulegotara (XVI. eranskina):

1.– Tesiaren ale bat formatu elektronikoa (CD), akta bat koadernatu gabe, doktorego tesia defendatu ondoren epaimahaiko kideek egindako txostenak, Unibertsitateen Kontseiluaren fitxa mekanizatua (Teseo) (XVII. eranskina) eta baimena, halakorik bada, doktorego tesiaz era librean baliatzeko Hezkuntza Ministerioaren eta UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzuaren webgunearen bitartez (XVIII. eranskina). Hori dena, bidaltze idatziarekin batera, Graduondoko Ikasketen Zerbitzura bidal

dadin. Sinadurak jatorrizkoak izango dira lehenago aipatutako dokumentu guztietan. Era berean, doktorego tesiaren laburpena bidali beharko da posta elektronikoz.

2.– Behin doktorego tesiaren defentsaren dokumentazio guztia jasota eta arautegi honek ezarritakoaren arabera gainditu dela egiaztatuta, Graduondoko Ikasketen Zerbitzuak UPV/EHUko Idazkaritza Nagusiari eta dagokion doktorego eskolari jakinaraziko dio.

3.– Formatu elektronikozko tesia Hezkuntza Ministeriora bidaliko da artxibatzeke, baita Biblioteka Nagusira horretarako sortutako gordailuan artxibatzeke ere.

4.– Erregistro Orokorrean gordailuan utzitako doktorego tesia dagokion doktorego eskolara igorriko da.

22. artikulua.– Dieten ordainketa.

Haien ohiko bizitokitik desplazatu behar izan duten epaimahaiko kideei bidai gastuak, dietak eta bertaratzea ordainduko dizkie defentsa egin den ikastegiko administrariak.

V. KAPITULUA

DOKTORE TITULUAREN EGITEA

23. artikulua.– Doktore tituluaren egitea.

Doktore tituluak doktorego tesia gainditu den unibertsitateak egingo ditu.

Doktoreek eskaera tramitatu beharko dute doktorego titulua egin diezaieten. Horretarako, honakoak egin beharko dituzte:

1.– Eskaera inprimakia bete (XIX. eranskina).

2.– Dagokion diru zenbatekoa ordaintzea titulua egiteko.

3.– NANaren edo pasaportearen fotokopia eranstea.

4.– Doktore programan sartzeko erabilitako tituluaren fotokopia erkatu bat erantsi, edo fotokopia eta jatorrizkoa alderatzeko, tesiaren proiektua inskribatzerakoan dokumentazio hori aurkeztu ez zuten doktoregaiek. Titulu hori UPV/EHUa atera duten doktoregaiek ez dute dokumentazio hori aurkeztu beharko.

5.– Unibertsitateko goi hezkuntzako titulu ofizialetarako prezioak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntzarako Sailak ezartzen ditu ikasturte bakoitzerako.

6.– Sail batzuen arteko programa batean, doktore tituluaren aurreko aldean agertuko da doktorego tesia inskribatu zen saila.

VI. KAPITULUA

NAZIOARTEKO DOKTOREGOA

24. artikulua.– «Nazioarteko doktorea» aipamena.

«Nazioarteko doktorea» aipamena jar daiteke, doktorego tituluaren aurreko aldean, ondorengo baldintzak gertatzen direnean:

1.– Doktore titulua lortzeko beharrezkoa den prestakuntza denboran doktoregaiak gutxienez hiru hilabeteko egonaldia egina izatea, horietako bi gutxienez jarraian, Espainiatik kanpo goi mailako hezkuntza erakunde edo sona handiko ikergune batean, ikasten edo ikerlanak egiten. Egonaldia eta jarduerok zuzendariak babestuta egongo dira eta doktorego programaren Batzorde Akademikoak baimenduta, eta doktoregaiaren jardueren dokumentuan jasoko dira.

2.– Doktorego tesiaren zati garrantzitsu bat, gutxienez laburpena, eztabaida orokorra eta ondorioak erredaktatuta izan eta haren jakintza arloan komunikazio zientifikoa egiteko erabili ohi diren hizkuntzetako batean aurkeztea, Euskal Autonomia Erkidegorenak ez diren beste hizkuntza batean. Arau hau ez da aplikatuko egonaldiak espainola hizkuntza duen herrialde batean egiten direnean.

3.– Tesia Espainiakoa ez den goi hezkuntzako erakunde edo ikerketa institutu batekoak diren gutxienez bi doktore adituen aldeko txostena izatea..

4.– Espainiakoa ez den goi hezkuntzako institutu edo ikergune bateko gutxienez aditu bat –doktore titulua eduki eta a) atalean aipatutako egonaldiaren arduraduna ez izatea– tesia ebaluatzeko epaimahaiko kidea izatea.

Eleaniztasuneko Errektoreordetzak itzulpen baliabideak bermatu beharko ditu epaimahaiko kide guztiek doktoregaiaren aurkezpen publikoa ulertu eta geroago balioets dezaten.

25. artikulua.– Administrazio tramiteak.

UPV/EHUren «nazioarteko doktorea» aipamena lortu nahi duten doktoregaiak, arautegi honetako 13. eta 14. Artikuluek ezarritako agiriez gainera, honako agiriak ere aurkeztu beharko dituzte, doktorego tesia inskribatuta dagoen sailean tesia aurkezten dutenean:

1.– Inprimaki arautua «nazioarteko doktorea» aipamena egin dakion eskatuz (XX. eranskina).

2.– 24.3. artikuluan aipatutako aldeko txostenak.

3.– Atzerriko erakundeak, gutxienez, hiru hilabeteko egonaldiaz –egonaldi horretan aurkeztutako tesiarekin lanak egin dituela– egindako egiaztagiria.

Doktorego tesia inskribatuta dagoen sailak bidaliko dio dokumentazio guztia Graduondoko Ikasketen Zerbitzuari UPV/EHUko Doktoregoko Azpibatzerdean tramitatzeko.

Doktorego tesiaren defentsaren ondoren, epaimahaiko idazkariak epaimahaiaren osaerari eta defentsan erabilitako hizkuntza edo hizkuntzei buruzko ziurtagiria (XXI. eranskina) bidaliko dio Graduondoko Ikasketen Zerbitzuari UPV/EHUko Doktoregoko Azpibatzerdean tramitatu dadin.

26. artikulua.– Egiaztatze akademikoa.

«Nazioarteko doktorea» aipamena emateak egoera hori duela egiaztatzen duen egiaztagiria bat izateko eskubidea emango du, Doktoregoko Azpibatzerdeko presidentek egina. Era berean, doktore tituluaren aurreko aldean jarriko da «nazioarteko doktorea» aipamena.

VII. KAPITULUA

TESIAK TUTOREKIDETZA ERREGIMENEAN

UPV/EHUren eta beste unibertsitate batzuen arteko lankidetzarako harreman estuek eta askotarikoek ezinbestekoa dute tutorekidetza erregimeneko doktorego tesiak zuzentzeko baldintzen barne arautzea, baliabide zein formena, prozesu horretan UPV/EHUko ikertzaileek

parte hartzen dutenean, berdin delarik doktoregai gisa edo ikerlan horien zuzendari gisa ari diren. Era berean, ezinbestekoa da arautze horren premia eskatzeko prozedura erabakitzea.

Tutorekidetza araubidearen bidez, lankidetza zientifiko sendoago bat lortu asmo da, berehalako xede eta elkarrekikotasun gisa, UPV/EHUko ikerketa taldeen eta beste unibertsitate batzuetako ikerketa taldeen artean; horrez gainera, bi erakunde akademikoetako doktoregaien mugikortasuna ere lortu asmo da. Tutorekidetza unibertsitate bakar batekin baizik ezingo da ezarri kasuan-kasuan, eta hitzarmen espezifiko bat izenpetuko da horretarako. Dena dela, hori ez da eragozpen izango UPV/EHUren eta beste unibertsitate batzuen artean esparru erabakiak hartzeko, gerora tutorekidetza erabakiak hartu ahal izan daitezten esparru erabaki horretan parte hartzen duten unibertsitate guztien artean.

27. artikulua.– Tutorekidetza erregimenerako sarbidea.

UPV/EHUren eta beste unibertsitate baten artean doktorego tesi bat egiteko tutorekidetza erregimenaz baliatu nahi dutenek idatziz eskatu beharko dute horretarako arautegi honetan dagoen inprimakia betez (XXII. eranskina), doktorego programaren Batzorde Akademikoari zuzenduta. Batzorde horrek UPV/EHUko Doktoregoko Azpibatzerdeari jakinarazi beharko dio (XXIII. eranskina), eta horrek gaiari buruz indarreko legedian jasota dauden baldintza akademikoak eta prozedurazkoak betetzen direla egiaztatu beharko ditu, tutorekidetzaren behin betiko baimentzea ebatzi baino lehen.

28. artikulua.– Doktorego tesi proiektua tutorekidetza erregimenean inskribatu.

Behin doktorego tesi bat tutorekidetza erregimenean egingo dela onartuta, interesdunak doktorego tesiaren proiektuaren inskripzioa egin beharko du, oraindik inskribatuta ez badago.

Doktorego tesiaren egitasmoaren inskripzioa berariazko hitzarmena sinatu duten bi unibertsitateetan egin beharko da, unibertsitate bakoitzeko arautegiekin bat etorrira. Kontzeptu horregatik tutorekidetzari buruzko hitzarmenak ezartzen dituen prezioak ordaindu beharko dira.

29. artikulua.– Unibertsitateen arteko tutorekidetza hitzarmenak.

Doktorego tesi bat tutorekidetza erregimenean egiteko, lehenago izan beharko da UPV/EHUren eta beste unibertsitatearen arteko berariazko hitzarmen bat, honekin batera doan ereduaren arabera (XXIV. eranskina).

Hitzarmen espezifikoak UPV/EHUko errektoreak sinatu beharko ditu, UPV/EHUko Doktoregoko Azpibatzerdeak proposatuta.

Sinatutako tutorekidetzarako hitzarmen espezifikoaren xedapen oro aldatzeko salbuespen gisa bakarrik gerta daiteke, baldin eta aurrez UPV/EHUko Doktoregoko Azpibatzerdeak baimendu badu eta geroago unibertsitate sinatzaileetako errektoreek onartzen badute.

30. artikulua.– Tutorekidetza erregimeneko doktorego tesia prestatu eta aurkeztu.

1.– Hitzarmen espezifikoa sinatu duten unibertsitate bakoitzeko zuzendari batek ikuskatuta eta haren ardurapean egin beharko da doktorego tesia. Zuzendaria aukeratzeko, unibertsitate bakoitzean dauden baldintzak bete beharko dira.

2.– Doktorego tesiaren ikerketa hiru urteko epean (salbuespen gisa erabaki daiteke bi urte gehiagoz luzatzea) egingo da bi unibertsitateetan, UPV/EHUUn tesiaren proiektua inskribatu denetik kontatzen hasita. Egonaldiak unibertsitateen artean banatuko dira txandakako egonaldi denboren bitartez. Unibertsitate bakoitzean egin beharreko egonaldia ez da izango inola ere

bederatzi hilabete baino gutxiagokoa, eta gainerako denbora beste unibertsitatean osatu beharko da. Egonaldi hori aldi bakarrean edo epe zatikatuetan egin daiteke.

3.– Doktorego programaren Batzorde Akademikoa izango da tesi proiektuaren nondik norakoak jarraitu eta kontrolatzeko arduraduna.

4.– Tesia bere jakintza arloko zientzi dibulgaziorako erabiltzen den hizkuntzan erredakta daiteke, edo unibertsitate interesdunen hizkuntza ofizialetako batean. Edonola ere, idatzizko laburpen bat egin beharko da tesia erredaktatuta ez dauden unibertsitateen hizkuntzetan.

5.– Doktorego tesia aurkeztu eta gordailuan uzteko, tesia defendatuko den unibertsitatearen indarreko arautegiak ezarritakoaren arabera egingo da, beste unibertsitateak ontzat emana.

6.– Egindako ikerlanaren emaitzen argitalpena, ustiapena eta babesak hartu duten bi unibertsitateek ziurtatuko dute, herrialde bakoitzeko unibertsitate bakoitzaren prozedura espezifikoaren arabera.

31. artikulua.– Tutorekidetza erregimeneko doktorego tesiaren epaimahaia.

Tesia ebaluatu behar duen epaimahaia bi unibertsitateek izendatuko dute, eta haren osaera tesia defendatuko den unibertsitatearen herrialdeko legeria aintzat hartuz egingo da. Tesiaren zuzentze lanetan parte hartzen duten zuzendariak izan daitezke epaimahaiko kideak, baldin eta bi unibertsitateek sinatutako hitzarmenean horrela jasota badago.

Tesiaren defentsa beste unibertsitatean egiten bada, epaimahaiko kideetako bat UPV/EHUkoa izango da.

Epaimahaiaren izendapenarekin batera bi unibertsitateek egindako ziurtagiria ere beharko da, doktoregaiak unibertsitateetako batean eman duen egonaldi denbora azalduz.

32. artikulua.– Tutorekidetza erregimeneko doktorego tesia defendatu.

Doktorego tesiak gordailuan uzteko eta defendatzeko erak tesia defendatuko den unibertsitateko doktorego ikasketak arautzen dituzten berberak izango dira.

Tesia hitzarmenean berriaz adierazten den unibertsitatean defendatuko da. Doktoregaiak defentsa tasak ordaindu beharko ditu tesia defendatuko duen unibertsitatean.

Doktorego tesia UPV/EHU defendatzen denean, tesia onartzeko tramiteak, epaimahaiaren izendapena eta defentsa ekitaldia indarreko legedi eta arautegiaren arabera egingo dira. Era berean, beste unibertsitatean egindako egonaldien ziurtagiri ofiziala aurkeztuko da.

